

DONOSTIAko TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21




Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.


24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.




Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?


Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **Apur bat altuagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik dauden eragile-kopurua**, berriz, lurraldeko batez bestekoa baino **dezente handiagoa** da.



Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%21a ezarri da bere 1. urtean



Bilakaerak zer adierazten du?


Lortutako ezarpen-maila **altua da desiragarria** den **helburu**-balioarekiko. Era berean, Donostiako Planaren garapen-maila lurraldeko **batez bestekoaren gainerik kokatzen da.**

Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Ekintza-planak modu egokian egin du aurrera, bere lehen urtean ekintzen gehiengoa abian jarri eta %26a baino ez baitzegoen *Hasteko* egoeran.

Hasierako urteetan gertatu ohi denez, oso gutxi dira *Amaituta* edo *Aurreratuta* dauden ekintzak (%7). *Amaitzen* egoerako ekintzarik ere ez dago. Hasita egoeran dauden ekintzen %67ak nolako eboluzioa duen esanguratsua izango da datorren urteko emaitzetarako.

TEPren ezarpen-maila



2015ean amaitutako ekintza adierazgarri batzuk:

6.3.19 Amara eta Bidebieta auzoetako birgaitze energetikoaren azterketa pilotua eta haren zabalkundea

6.4.1. Udalak erositako energiaren % 100 iturri berriztagarrietakoa izatea.

2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

1.1.2 Erosketa eta kontratazio arduratsuan pertsonak formatzea

4.1.1 Behe Kanalerako eramate alternatiboaren proiektuari ekitea


5.3.8 Ibilgailu pribatuaren eta garraio publikoaren arteko lotura egingo duten aparkamendu gomendatuak sustatzea

6.2.9 Kontsumo handieneko eraikinetan energia tele-kudeatzeko sistemak ezartzea, energiari dagozkion jardunbide egokien plan batekin batera, BEGIRALEA proiektuaren esperientziaren analisitik abiatuta.

6.2.14 Udaleko langile teknikoentzako etengabeko prestakuntzako programa bat martxan jartzea, eraikin publikoetako energia instalazioen erabilera eraginkorrari buruzkoa.

Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila

Ezarpen-maila (%)



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

Inguru osasuntsu bat bermatzea eta hiritarren artean osasuna sustatzea: %19ko ezarpen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Hiritarren artean osasuna sustatzea.
- Soinu-ingurumena hobetzea.
- Osasunaren ikuspuntutik egiten diren gomendioak kontuan harturik airearen kalitatea hobetzea.
- Kutsadura elektromagnetikoa murriztea.

Berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea, mugikortasun iraunkorra bultzatzen duen hiri baten aldeko apustua eginez: %20ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Hiri-mugikortasun iraunkorrerako plana berrikustea eta garatzea.
- Motordunak ez diren garraiobideak eta irisgarritasun unibertsala bultzatzea eta sustatzea.
- Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea.
- Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea.
- Hirira sartzeko eta hiria bisitatzeko garraio publikoaren eta ibilgailu pribatuaren ordezkoko bestelako garraiobideen erabilera bultzatzea eta sustatzea.
- Salgaien banaketan eraginkortasuna hobetzea.
- Udaletxean mugikortasunaren ondorioz sortzen diren isurketak murriztea, mugikortasun iraunkorrerako jardunbideen bitartez
- Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea

Partaidetza TA21en baitan

**PARTE-HARTZE BIDE
NAGUSIA**
**INGURUMEN
KONTSEILUA DA**

**LANDU DIREN GAI
NAGUSIAK:**
**Eremu publikoetarako
proiektuak,
Ingurumen-babesa,
Hondakinak,
Ingurumen-hezkuntza**

**AGENDA 21EN 4
PARTAIDETZA-
BILERA**

**PARTE HARTZEN
DUTEN ERAGILEAK:**
**Ordezkarri politikoak,
teknikariak, elkarteak,
ikastetxeak eta
norbanakoak**

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (www.donostia.eus web gunean eskuragarri)

The screenshot shows the website for Donostia City Council (Ayuntamiento de San Sebastián). The header includes the city's logo and name, navigation links for 'Kale Izendegia', 'Helbide Erabilgarriak', 'Tramiteak', and 'Herritarren postontzia', and a search bar. The main navigation bar contains 'Home', 'Bulego birtuala', 'Udala', 'Hiria', and 'Turismoa'. The breadcrumb trail indicates the current location: 'Home / Hiria / Ingurumena'. The 'INGURUMENA' section is active, listing links for 'Lan arloak', 'Zer egin dezakezu eguneroko bizitzan?', 'Enpresak', and 'Zure Hiria'. A banner for 'Ingurumen Saila' (Environment Department) is displayed, featuring a logo with a green leaf and a blue water drop, and the text 'Ingurumen Saila Donostiako Udala'.